

Do.i Atzizkiaren ondorengoak Nafarroan

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

Lan honen helburu nagusia *do.i* atzizkiak Nafarroan dituen ondorengoak zein diren aztertzea da, aldaki bakoitzaren banaketa geografikoa ahalik eta gehien zehaztuz. Honetarako historikoki euskalduna izan den alderdian bailaraz bailarako, eta are herriz herriko, ikerketa burutu behar izan dugu ¹, tokian tokiko aldaera finkatu ahal izateko.

Guztiarekin ere, hemen esaten direnak hein handi batean behin-behinekotzan jo behar dira, gauzak ez daudelako guk nahi bezain garbi batzutan, han-hemenka behar adina datu biltzerik izan ez dugulako bestetan ². Datozen ikerketek argituko beharko dute, beraz, hemen zalantzan gelditzen diren tokietan zein aldaki agertu ohi den, bai eta segurutzat jotzen direnak benetan hala diren, edo toponimo berrien aurkikundeak eritiziz aldatzera eramane behar gaituen.

Bukaera aldean *do.i*-ren ondorengoekin batera azaltzen diren izenen (oinarrien) azterketa xumea egin dugu, esan bezala, gure xedea beste bat bada ere. Hasteko atzizki honetaz arduratu diren autoreen eritzia aldatuko -dugu hona:

1. Azkuek “afijo derivativo nominal colectivo” deitzen du eta *-alde*, *-eri*, *-kada* (*-tara*, *-tra*, *-ta*), *-tegi*, *tza* (*-tze*), *-z* eta *zko*-rekin batera sailkatzen du ³. Ondoren, euskalkien arabera banaketa egiten du, eta *-di* bizkaiera

1. Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau burutezko beharrezko nituen zenbait datu eskue-taratu dizkidaten Andrés Iñigo, J.M.^a Jimeno Jurío, Mikel Melero eta Mikel Velasco adiskideei.

2. *Lana* ibarra, adibidez, ukitu gabe gelditu da, eta itxura guztien arabera oso bailara in-teresgarria dugu hau. Kasu berean daude *Goñerri*, *Arriasgoiti* eta *Romanzadua*. Beste batzutan lekuko bat edo beste izan arren, toponimo gehiago behar genuke segurtasunez jokatu ahal izateko. Hau da *Ameskoabarren*, *Allinibar*, *Longida*, *Untzitibar* eta *Urraulgoiti*-ren kasua, gutxieneko kontuan.

3. *Morfología vasca*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969, 81, or.

eta gipuzkeraz, *-doi* behenafarreraz, lapurteraz, erronkarieraz eta zubererera-
raz, eta *-dui* bizkaieraz erabiltzen direla dio. Atzizkiaren bizitasunari
dagokionez, toponimiaz kanpo ia ez dela aditzen uste du.

2. Mitxelenak ⁴ atzizki hau toponimian maiztasun handikoa dela dio, ba-
tik bat landare izenekin. Gero, euskalkika banatzen ditu aldakiak, denen
iturburua aurkitu nahiean. Ikerlari honen arabera, *-doi* ekialdekoa da
(behenafarrera, zaraitzuera, erronkaria, eta zubereraz erabilia), hegoaldeko
goi-nafarreraz eta aezkeraz *-dui*-rekin batera azaltzen delarik. *-Dui* mende-
baldeko bizkaieraz erabiltzen da, eta toponimiak erakusten duenez Araban
ere ezaguna izan da. *-Di* ageri den euskalkiak ez ditu aipatzen, baina garbi
dago eliminazioz jokatu behar dela.

Etorkiari dagokion bezainbatez, *-di*- aldakia *-doi*, *-dui*-tik atera bide de-
la dio, eta *-doi*, *-dui* bere aldetik, lehenagoko *-do.i* silababiko batetik.

3. P. Lafittek bere gramatika ospetsuan ⁵ oso gaingiroki baizik ez du
ukitzen eratorketa, eta aztergai dugun atzizkia multzokari edo “collectif”-en
arteant sartzen du, *-di*, *-doi* eta *-toi* aldaerak ematen dituelarik, hauetako ba-
koitzaz ezer esan gabe, ordea.

4. Villasantek ⁶ *-di* toponimian oso arrunta dela dio, eta *s* eta *z*-ren
ondoan *-ti* bilakatzen dela. Autore honen arabera, hegoaldeko (“meridiona-
les” dio berak) eta ekialdeko eskualkietan *-dui*, *-doi* aldakiak erabiltzen dira.

Nafarroan, euskaldean arabera, *-di* (*-ti*), *-dui* (*-tui*), *-doi* (*-toi*) aurkitzen
ditugu, bai eta bigarrenaren aldakia den *-du* (*-tu*) ere. Azken hau, gure
ustez, *-dui* (*-tui*)-dun toponimoa eskuarki posposizio batez lagundurik joa-
tearen ondorena izan daiteke: Eslaban adibidez, *Artadubarren*⁷,
*Artaduondoa*⁸, *Artadugibel*⁹... aurkitzen ditugu gehienetan, eta bakanka
baizik ez *Artadu*¹⁰ forma soila (<* *Artadui*). Ekalan *Ariztubeltza* daukagu¹¹,
eta Abaurregainean *Ariztumendia*¹², hots, **Ariztui*-tik atera bide den *Ariztu*
“hariztia» gehi *beltza* izenondoaz eta *mendia* izenaz osatutako elkartuak. -
Du edo *-tu* aldaerak azaltzen diren tokietan *-dui* (*-tui*) izaten da aldaera
nagusia edo bakarra, eta beraz lehen hori bigarren honetatik atera dela garbi
samar dago. Edozein modutan, elkarketatik kanpo ere azaltzen dira honela-
ko toponimo laburtuak: Urraulgoitin, adibidez, *Aristu* herria daukagu, eta
Zudairin *Ezpeldu* toponimoa¹³.

4. *Fonética Histórica vasca*, Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo, Donostia,
1977 (2. argitalpena), 107-108.orr.

5. *Grammaire basque*, Elkar, Donostia, 1978, 34.or.

6. *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana de Aránzazu, Oñati,
1974, 66-67.orr.

7. PRA-San Martín Unx 27.k. 1831.

8. PRA-Kaseda, 18.k. 1718.

9. PRA-San Martín Unx 43.k. 1755.

10. PRA-Oibar 7.k.bis, 1593. Lantxo honetan aipatzen diren toponimo guztiak norma-
lizaturik emanen dira, hau da, euskal ortografiaren idatzirik aurkeztuko dira, zenbaitetan soinu
aldaketa dakarten grafema aldaketak ere burutu direlarik, kontua garbi zegoenean.

11. L. Lapuente, “Toponimia amescoana”, FLV 21.alea. 1975, 393-410.orr.

12. 1916ko katastroa.

13. L. Lapuente, 408.or.

Honelako laburketak ugariak dira, eta ez bakarrik - *dui* (-*tui*)-ren kasuan. Uritzen (Artzibarren), adibidez, *Zumeadoi*¹⁴ eta *Xunkadoi*¹⁵-ren aldameanean, *Pinadiondoa* dokumentatzen da¹⁶, gure iduriz aurreko **Pinadoiondoa* batetil atera dena, euskualde horretan -*di* ez baita agertu ohi. Azparrenen berriz, *Zigordia* dokumentatzen da¹⁷, *Zigordua*-rekin batera¹⁸, eta inguruko herri eta ibarretan -*dui* eta -*doi* besterik azaltzen ez denez, *Zigordia* *Zigordua*-tik atera dela pentsatzeko arrazoiak badaude¹⁹.

Atzizki honen banaketa geografikoa ikertzeko orduan alde batera utzi behar izan ditugu silaba bakarreko oinarria zuten toponimoak, kasu hauetan *doi*, *dui* > *di* laburketa burutu ez delako. Honela bada, "harridi", "harritze" esanahia duen *Ardui*, *Ardoi* baztertu dugu, beste toponimoen jokabidetik saihesten zelako. Adibidez, *Ardui* dugu Zizur Nagusian²⁰, Elon²¹, Elortzen²² eta Badoztainen²³, leku horietan beretan dokumentatzen diren *Txunkadiburua*²⁴, *Ezkidia*²⁵, *Sarasti*²⁶ eta *Sarasdia*²⁷-ren ondoan. *Ardoi*²⁸ dugu Labion *Elordibazterra*²⁹-ren aldameanean, *Ardoia* Puiun³⁰ eta *Ardoibidea* Gazolatzen³¹, *Zuazti*³² eta *Zugardia*³³-ren alboan... Beste adibide bat *ibi* + *doi*-ren bat egiteaz sortu den *idoi* "baltsa" arrunta dugu. Aurrekoan bezala, hemen ere beti aipatu forma hori azaltzen da, baita atzizkiaren ohizko aldakia -*dui* nahiz -*di* denean ere.

Oinarriak bi silaba edo gehiago dituenean, ordea, laburketa gertatu da, eskuarki gertatu den tokietan: *Arridia* dugu Zizur Nagusian³⁴ aipatu *Txunkadiburua*-rekin batera, *Arridibidea* Baternainen³⁵, *Txopodi*³⁶-ren ondoan...

14. 1892ko katastroa.

15. 1914eko katastroa.

16. 1892ko katastroa.

17. 1892ko katastroa.

18. 1892ko katastroa.

19. Batzutan halere, aldaera bat azaltzen da beste bat nagusi den eskualdean: *Zuaztoi* auzo izena Azpilkuetan, Baztanen beti -*di* (-*ti*) badugu ere, *Zamakidoi* Galipentzun, alderdi honetan orokorra den -*dui*-ren aldameanean...

20. Jimeno Jurío, *Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1986, 177.or. (Hemendik aurrera TCPCC).

21. 1892ko katastroa.

22. Agoizko hipotekak-4, 589.or.

23. J. M.^a Lacarra, *Vasconia Medieval*, SJU, Donostia, 1957, 32.or. (Hemendik aurrera VM).

24. TCPCC, 189.or.

25. PRA-Kaseda, 33.k., 1790.

26. Agoizko hipotekak-3, 694.or.

27. Agoizko hipotekak-3, 562.or.

28. B. Equiza eta bestek, "Labiano: Estudio etnográfico-histórico", CEEN 43.zkia., 1984, 5-37.orr.

29. PRA-Elo, 2 k, 1650.

30. PRA-Oibar, 96.k., 1816.

31. TCPCC, 268.or.

32. PRA-Barásoain, 5.k., 1628.

33. TCPCC, 306.or.

34. TCPCC, 179.or.

35. TCPCC, 390.or.

36. Idem.

Beste aldetik, aitortu behar dugu kasu frankotan oinarria ez dela bat ere garbia, eta zaila dela horrelakoetan aztergai dugun atzizkia ageri dela segurtatzea: *Alkadoia* dugu Urzainkin ³⁷, *Esprandoia* Uztarrozen ³⁸, *Industioia* Orontzen ³⁹, Zalenurrutuia Aezkoa-Hiriberrin ⁴⁰... Arrisku bat ere bada gainera, batik bat *-doi* aldakiari dagokiona: zenbaitetan *idoi* "baltsa" hitzaren elkarketako laburketa batetik atera ahal izan da oraingo *-doi* hori. Esaterako, Artaxonan XVI mendean *Landerydoia* ⁴¹ zena (cf. herri bereko *Landerituri* ⁴²), XVIII.etik aurrera *Landerdoya* bilakatu zen. Kasu honetan, Artaxonako aldaera *-di* denez, aipatu izen horren azpian beste zerbait daukagula garbi ikus dezakegu, batez ere hidronimo baten aitzinean bagaude. Ekialdeko euskalkietan ordea, alegia, eskuarki edo beti *-doi* erabiltzen dutenetan, bereizketa egitea zailago izanen zaigu, eta hor ditugu, esandakoa-ren frogagarri, aipatu *Alkadoia*, *Esprandoia*... eta antzeko toponimoak.

Orain hizkuntz mugako ibar eta herrietan zer aldaki azaltzen den zehazten saiatuko gara, mendebaldean hasi, eta ekialderaino:

Ameskoagoien: bailara honetan *-dui* aurkitzen dugu: *Azpildunia*, *Eskarduia* (Aranaratxe) ⁴³, *Galarduia* (Larraona) ⁴⁴.

Ameskoabarren: hemen ere, gehienetan, *-dui* aurkitzen dugu: *Alkortabelarretako ilarradunia* (herria?) ⁴⁵, *Arandunia* ⁴⁶ (Ekala), *Arantzadunia*, *Artxikadunia* ⁴⁷ (San Martín), *Biribidadunia* ⁴⁸ (Artatza), *Otadui* (herria?), *Otadunigoiena* (herria?) ⁴⁹, *Txapardunia* (Gollano) ⁵⁰, *Unzidunia* (herria?) ⁵¹.

—*Dui* edo *-tui*-ren laburketa diren *-du* eta *-tu* ere dokumentatzen dira: *Aritzubeltza* (Ekala), *Ezpeldu* (Zudairin).

Guztiarekin ere, *-doi* ere aurkitzen dugu *-dui* azaltzen den herrietan, are toponimo beretan: *Lizardoia* (Ekala) ⁵², *Otadoia* (herria?). Cf. *Otadui*, *Otadunigoiena* ⁵³, *Zapardoia* ⁵⁴ (Gollanon. Cf. *Txapardunia* ⁵⁵ herri berean).

37. Tomás Urzainqui, "Aplicación de la encuesta etnológica en la villa de Urzainqui (Valle de Roncal)", CEEN, 19.zkia., 1975, 51-63.orr. (Hemendik aurrera "Encuesta").

38. Agoizko hipotekak-4, 195.or., 1857.

39. Agoizko hipotekak-4, 425.or., 1858.

40. Agoizko hipotekak-3, 597.or., 1852.

41. Jimeno Jurío, "El euskera en la toponimia de Artajona", FLV, 3.zkia., 1969, 375-385.orr. (hemendik aurrera ETDA).

42. Idem.

43. 1895eko katastroa.

44. Eleizalde. "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas", batzu 1919-1936 bitartean RIEV-en argitaratuak, eta besteak BRSVAP-en gerla ondoren (hemendik aurrera Eleizalde).

45. Luciano Lapuente, "Toponimia amescoana", FLV, 21.zkia., 1975, 393-410.orr. (TA aurrerantzean).

46. 1895eko katastroa.

47. 1895eko katastroa.

48. TA, 1693.

49. TA, 1590.

50. 1895eko katastroa.

51. TA, 1590.

52. 1895eko katastroa.

53. TA, 401.or.

54. 1895eko katastroa.

Bailara honetako Urra herrian, azkenik, *-di* aurkitzen dugu: *Artaditxipia*, *Fagadigurena*, *Fagadigurengo fagadiko bagoa* ⁵⁶.

Allinibar: ibar honetan *-di* dugu gehienetan, baina badugu *-doi*-ren adibide bat: *Lizardia* (Amillao) ⁵⁷, *Lizardoia* (Aramendia) ⁵⁸, *Muskildia* (Arbeitza) ⁵⁹, *Txaradia* (Larrion) ⁶⁰.

Lizarra: *-di* dugu merinaldeburuan: *Ezpeldi*, *Illardi*, *Zamakidi* ⁶¹.

Iguzkitza: bailara honetan *-di* azaltzen da ditugun lekukotasunetan: *Lezkadia* (Barbarin) ⁶², *Muskildia* (Villatuerta) ⁶³, *Zamakidia* (Aberin) ⁶⁴, *Zamakidia* (Morentin) ⁶⁵.

Deierri: hemen ere *-di* azaltzen da: *Artadiondoa* (Errezu) ⁶⁶, *Ilardia* (herria?) ⁶⁷, *Lauzadia* (Lezáun) ⁶⁸, *Lizardia* (Arizaleta) ⁶⁹, *Otadigibela* (herria?) ⁷⁰, *Txapardia* (Lorka) ⁷¹.

Mañeruibar: ditugun lekukoek *-di* dute: *Arridia* ⁷² (Artazu), *Txapardia* ⁷³ (Argiñaritz), *Txarakadia* ⁷⁴ (Zirauki), *Zamakidia* ⁷⁵ (Mañeru), *Zugardia* (Girgillano) ⁷⁶, *Zumedia* (Etxarrentxulo) ⁷⁷.

Izarbeibar-Muru Artederreta: hemen ere, ondoko herrietan bezala, *-di* aurkitzen dugu: *Elordi* (herria?) ⁷⁸, *Orradia* (Adiotz) ⁷⁹, *Zuaztia* (Olkotz) ⁸⁰, *Zumaelordiondoa* (Muru Artederreta) ⁸¹.

Artaxona ⁸²-*Orba ibarra*: Artaxonan beti *-di* dokumentatzen da: *Artadia*, *Gilolibadia*, *Lezkadia*, *Zumadia*.

55. Idem.

56. TA. 397.or.

57. Eleizalde.

58. 1894eko katastroa.

59. Eleizalde.

60. Eleizalde.

61. Jimeno Jurío, "Toponimia de Estella", argitaragabeko lana.

62. 1895eko katastroa.

63. Eleizalde.

64. Eleizalde.

65. Eleizalde.

66. PRA-Lizarra, 435.k., 1733.

67. TA, 4040.or.

68. Eleizalde.

69. Eleizalde.

70. TA, 404.or.

71. PRA-Lizarra, 109.k., 1673.

72. 1894eko katastroa.

73. Eleizalde.

74. Eleizalde.

75. VM, 49.or. Toponimo hau, alabaina, *Zamakidoa* omen da orain (ikus Eleizalde).

76. Eleizalde.

77. Eleizalde.

78. Florencio Idoate, "Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)", PV, 108-109.zkia., 309-338.orr.

79. Eleizalde. Toponimo opakoa da hau, eta beste zerbaiten desitxuraketa izan daitekeela uste dugu.

80. PRA-Kaparroso, 31.k., 1627.

81. Idem.

Orba ibarrean ere kasu batean ez beste guztietan *-di* aurkitu dugu, eta salbuespen hori gertatzen den herrian *-di* ere dokumentatzen da: *Artadia* (Iratxeta)⁸³, *Artadia* (Oleta)⁸⁴, *Bagadia* (Etxague)⁸⁵, *Bagadigar* (Uzkita)⁸⁶, *Bikudia* (Barasoain)⁸⁷, *Ezpeldia* (Artariain)⁸⁸, *Izpikudia* (Orisoain)⁸⁹, *Lezkadia* (Amatriain)⁹⁰, *Lizardia* (Makirriain)⁹¹, *Txapardia* (Santsomain)⁹², *Zuazti* (Puiu)⁹³, *Zuaztia* (Orizin)⁹⁴.

Amatriainen aipatu *Lezkadia*-rekin batera *Txaparduia*⁹⁵ ere dokumentatzen da, eta ez dakigu honen arrazoa zein izan daitekeen.

Oibar aldea: hemen Oibar ibarra sartzen dugu, eta honen azpiko aldean dauden Galipentzun, Uxue eta Olibaldea deituko duguna (cf. Ricardo Cierbideren "Toponimia de la comarca de la Oliva"). Alderdi honetan nagusi agertzen den aldakia *-dui* da: *Arandui* (Murillo el Fruto)⁹⁶, *Arantzeduia* (Lerga)⁹⁷, *Izpikudua* (Moriones)⁹⁸, *Legaztui* (Galipentzu)⁹⁹, *Lezkadua* (Eslaba)¹⁰⁰, *Lizardua* (Uxue)¹⁰¹, *Lizardua* (Ezporogi)¹⁰², *Onbordua* (Ageza)¹⁰³, *Zumadua* (Zare)¹⁰⁴.

Iparraldeko herrietan ordea, Leatxe eta Bizkaiko herrietan (denetako lekukorik ez daukagun arren), *-di* da aurkitzen dugun aldakia, mugakide duten Orba eta Ibargoitin bezalaxe: *Elordia* (Leatxe)¹⁰⁵, *Zonbordi* (Getadar)¹⁰⁶, *Otadia* (Sabaitza)¹⁰⁷.

82. ETDA.

83. Jimeno Jurio, *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Zaratutz, 1989, 97.or. (Hemendik aurrera THET).

84. PRA-Oibar, 89.k., 1804.

85. PRA-Barasoain, 3.k., 1604.

86. PRA-Oibar, 100.k., 1823.

87. 1892ko katastroa.

88. PRA-Oibar, 100.k., 1824.

89. PRA-Barasoain, 1.k., 1587.

90. THET, 130.or.

91. PRA-San Martín Unx, 45.k., 1759.

92. PRA-Oibar, 96.k., 1816.

93. PRA-Barasoain, 5.k., 1628.

94. PRA-Barasoain, 2.k., 1557.

95. PRA-Oibar, 2.k., 1537.

96. Ricardo Cierbide, "Toponimia de la comarca de la Oliva-II", CEEN, 47.zkia., 1986, 91-142.orr.

97. PRA-Kaseda, 3.k., 1686.

98. PRA-Oibar, 24.k., 1642.

99. PRA-Oibar, 67.k., 1767.

100. PRA-Oibar, 62.k., 1763.

101. PRA-San Martín Unx, 54.k., 1780.

102. PRA-Kaseda, 1.k., 1681.

103. PRA-Oibar, 2.k., Bis, 1563.

104. PRA-Oibar, 63.k., 1766.

105. 1892eko katastroa.

106. 1892ko katastroa. Toponimo hau opakoa da, eta ezin seguru egon bere etimologiagiaz. Dena dela, Aiesan *Onbordua* dugu, eta Uritzen *Txonbordi*, eta agian *onbor* "enbor"-ekin lotu beharko dugu, beste zerbaiten desitxuraketa ez bada behintzat.

107. PRA-Kaparroso, 43.k., 1648.

Hemen *-dui* > *-du* laburketa isladatzen duten bi toponimo agertzen dira: aipatu dugun **Artadui* > *Artadu* Eslaban, eta **Zamakidui* > *Zamakidu* Lergan ¹⁰⁸ (cf. beste toki batzutako *Zamakidi*, *Zamakidia*).

Galipentzu, gainera, *Zamaki doi*, daukagu ¹⁰⁹, *Legaztui*-ren ondoan, eta ez dakigu jatorrizko forma den ala erdararen eraginez itxuraldatutakoa. Kontuan hartu beharra dago Nafarroako ekialdean, gero ikusiko denez, *-doi* dela (Zaraitzu eta Erronkarin bederen) aurkitzen duguna, eta daitekeena dela, beste eskualde batzutan bezala, hemen ere bi aldaerak erabili izana. Dena den, uste dugu batzutan, euskara galdu den herrietan, *-doi* *-dui*-tik atera ahal izan dela, eta hain zuzen hau dela Galipentzuko toponimoaren kasua.

Urraulbeiti-Irunberri: hemen ere *-dui* da nagusi aurkitzen dugun aldaera, mugakide duen Oibar gehienez bezalaxe: *Apailekaduia* (Nardoze, Andurra?) ¹¹⁰, *Sagarduia* (Artieda) ¹¹¹, *Sagarduia* (Santsoain) ¹¹², *Izaurriduia* (Irunberri) ¹¹³. Geretzen, aldiz, *-dia* agertzen da *Izpikudia* toponimoan ¹¹⁴.

Urraulgoiti: bailara honetan bi lekuko besterik ez dugu, biek *-doi*-du-nak: *Ezpeldoia* (Eparotz) ¹¹⁵, *Zumadoia* (Irurozki) ¹¹⁶.

Zaraitzu: hemen *-doi* aurkitzen dugu beti: *Arantzedoia* (Ibiltzieta) ¹¹⁷, *Garardoia* (Ezkaroze) ¹¹⁸, *Industioia* (Orontze) ¹¹⁹, *Intxustioia* (Otsagi) ¹²⁰, *Intxustioia* (Sartze) ¹²¹, *Sagardoia* (Itzaltzu) ¹²², *Zamukadoia* (Espartza) ¹²³.

Erronkari: ibar honetan ere beti *-doi* aurkitzen dugu: *Ariztoia* (Bidankoze) ¹²⁴, *Ezkidoia* (Urzainki) ¹²⁵, *Legardoia* (Burgi) ¹²⁶, *Sagardoia* (Izaba) ¹²⁷, *Sagastoia* (Uztarroze) ¹²⁸.

Orain barruragoko bailara eta herriak aztertuko ditugu, aurrekoan bezala, mendebaldetik ekialderantz etorriaz:

108. 1892ko katastroa.
109. PRA-Kaseda, 29.k., 1777.
110. Agoizko hipotekak-3, 648.or., 1701.
111. Agoizko hipotekak-3, 29.or., 1850.
112. Eleizalde.
113. PRA-Irunberri, 3.k., 1708.
114. PRA-Irunberri, 83.k., 1790.
115. PRA-Irunberri, 83.k., 1776.
116. PRA-Oibar, 102.k., 1827.
117. 1916ko katastroa.
118. Eleizalde.
119. Agoizko hipotekak-4, 425.or., 1858.
120. Eleizalde.
121. 1916ko katastroa.
122. Eleizalde.
123. Eleizalde.
124. 1892ko katastroa.
125. Encuesta, 59.or.
126. 1916ko katastroa.
127. López Mugartza, *Anso-Erronkari mugaldeko toponimia erkatua*, argitaragabeko lana, 28.or.
128. Eleizalde.

Gesalatz: hemen beti *-di* dugu: *Illarradia* (Genbe)¹²⁹, *Ipurudia* (Iurre)¹³⁰, *Kisudia* (Argiñano)¹³¹, *Kisudia* (Izurtzu)¹³², *Zumadia* (Muzki)¹³³.

Etxauribar: bailara honetan *-di* dokumentatzen da: *Arizdigorri* (Belaskoain)¹³⁴, *Intxaustia* (Etxarri)¹³⁵, *Ipurudia* (Arraitza)¹³⁶, *Txarakadia*¹³⁷ (Bidaurreta), *Zumedia* (Zabaltza)¹³⁸.

*Zizur zendea*¹³⁹: hemen *-di* aurkitzen dugu: *Arridibidea* (Baternain), *Elordia* (Zizur Txikia)¹⁴⁰, *Ezpeldia* (Azterain), *Isasti* (Barañain), *Lauzadia* (Sagues), *Lezkadia* (Muru-Azterain), *Txertadia* (Gazolatz), *Txunkadiburua* (Zizur Nagusia), *Urrizdibide* (Undio).

Iruñea: Nafarroako hiriburuan ere *-di* ageri da, inguruko zendea eta haran guztietan bezalaxe: *Arantzadi*, *Arrosadia*¹⁴¹.

Aranguren: hemen ere *-di* azaltzen zaigu beti: *Elordi* (Aranguren)¹⁴², *Elordibazterra* (Labio)¹⁴³, *Txunkadia* (Taxoare)¹⁴⁴.

Eguesibar: aurrekoetan bezala, bailara honetan ere *-di* dokumentatzen da beti: *Giladi* (Elia)¹⁴⁵, *Itxaustia* (Elkano)¹⁴⁶, *Lazkadia* (Sagaseta), *Sagardi* (Altzutza)¹⁴⁷, *Sarasdia* (Badoztain)¹⁴⁸, *Zumadia* (Uharte)¹⁴⁹.

*Galar zendea*¹⁵⁰: hemen ere beti *-di* dugu: *Arantzedia* (Galar), *Arantzedia* (Zubitza), *Artadi* (Espartza), *Elordiaranekoa* (Ezkirotz), *Legardia* (Beriaín), *Lizardigibela* (Getze), *Txopodi* (Zarikiegi), *Zumadikoa* (Arlegi).

Elortzibar: haran honetan ere *-di* dugu: *Legardia* (Iharnotz)¹⁵¹, *Sarasti* (Elortz)¹⁵².

129. Eleizalde.

130. Eleizalde.

131. Eleizalde.

132. Eleizalde.

133. PRA-Lizarra, 612.k., 1737.

134. PRA-Etxauri, 126.k., 1876.

135. PRA-Etxauri, 70.k., 1770.

136. PRA-Etxauri, 91.k., 1817.

137. Bidaurretako udal artxibategia, 1890.

138. PRA-Etxauri, 89.k., 1812. Itxuraz bokal armonia dugu toponimo honetan (cf. *Zumadia*, hainbeste tokitan), baina ezin seguru egon ordea, oinarria *zume* delako. Cf. herri bereko *Lizerdia* (PRA-Etxauri, 127.k., 1877).

139. TCPCC.

140. Baina *Elorduibide* herri berean, 1837an.

141. Bi toponimo hauek bizirik daude oraindik.

142. Eleizalde.

143. PRA-Elo, 2.k., 1650.

144. Iruñeko Elizbarrutiko artxibategia, 1765.k., 269.or., 1723.

145. Eleizalde.

146. Juan Apecechea, "Inventario de los bienes de la casa de Joaquín de Lizarraga", FLV, 22.zkia., 1976.

147. Agoizko hipotekak-3, 579.or., 1852.

148. Agoizko hipotekak-3, 562.or., 1852.

149. Eleizalde.

150. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzindia, Iruñea, 1987.

151. Agoizko hipotekak-4, 387.or., 1858.

152. Agoizko hipotekak-3, 694.or., 1852.

Ibargoiti: hemen *-di* da aldaera nagusia baina *-dui* ere azaltzen da, batzutan *-di*-rekiko txandaketan: *Bagadiko erreka* (Zabaltza) ¹⁵³, *Ezkidia* (Elo) ¹⁵⁴, *Ezpelduia* (Besolla) ¹⁵⁵, *Urrizdia* (Idotzin) ¹⁵⁶, *Zapardia* (Getze) ¹⁵⁷. Elon, *Elordia*, *Ezkidia*, eta *Itxaustia* ¹⁵⁸-rekin batera, *Ezpelduigorria* ¹⁵⁹ ere badugu, eta Idotzinen *Urrizdia* eta *Urrizduia* ¹⁶⁰ dokumentatu ditugu.

Irunberri-Olatz: despoblatu honetan *Zamakidi* ¹⁶¹ dokumentatzen da, eta badirudi *-di* zela bertako aldaera, ondoko Leatxe eta Izkon bezala.

Untzitibar: *-duia* dugu bailara honetako lekuko bakarra den *Lizarduia* (Artaitz) ¹⁶² toponimoan.

Itzagaondoa: *Sagarduia* ¹⁶³ dugu Untzitibar eta Lizoainibarren artean da goen Lizarraga herrian.

Longida: Ibar honetan *-dui* eta *-di* daukagu, bai eta *-doi* ere kasu batean, *-dui*-rekiko txandaketan: *Artaduibazterra* (Orbaitz) ¹⁶⁴, *Iladuia* eta *Iladoia* (Ulibeiti), *Lizarduia* (Artaxo), *Zuazti* (Billabeta).

Agoitz: *Lizarduia* ¹⁶⁵ da herri honetan dugun adibide bakarra, eta beraz ezin erabat seguru egon *-dui* ote den bertako aldaera bakarra ala beste zerbaitekin txandakatzen den.

Artzibar: ibar honetan *-dui* eta *-doi* daukagu eskuarki ¹⁶⁶: *Andardoi* (Urdirutz) ¹⁶⁷, *Angordoi* (Nagore) ¹⁶⁸, *Areadui* (Orotz-Betelu) ¹⁶⁹, *Arizdoia* (Imizkotz) ¹⁷⁰, *Arizduia* (Otsa) ¹⁷¹, *Arizduia* (Zanduetza) ¹⁷², *Ariztuberria* (Azparren) ¹⁷³, *Bizkandoi* (Luzarreta) ¹⁷⁴, *Galardoi* (Arrieta) ¹⁷⁵, *Maldadoi*

153. PRA-Elo, 25.k.(?), 1694.

154. PRA-Kaseda, 33.k., 1790.

155. Kasu honetan, dena dela, kontuan hartu behar da adibide hau XI mendekoa dela, eta geroztik aldaketak gertatu ahal izan direla.

156. PRA-Elo, 11.k., 1684.

157. PRA-Elo, 4.k., 1671.

158. PRA-Elo, 4.k., 1660.

159. PRA-Elo, 25.k.(?), 1769.

160. PRA-Elo, 50.k., 1801.

161. PRA-Oibar, 102.k., 1827.

162. Agoizko hipotekak-3, 761.or., 1852.

163. Agoizko hipotekak-3, 318.or., 1857.

164. Longidako datuok J.M.Mujikaren "Longida-ko toponimoak" (CEEN, 51.zkia., 1981) izeneko artikulutik atereak dira. Gure ustez bertan azaltzen diren toponimoak batzutan nahasirik daude eta hau dela eta, ezin daiteke ondorio finkorik atera bailara honi dagokionez.

165. Elizalde.

166. Gorago esan bezala, Uritzen *Pinadiondoa* daukagu, *Xunkadoi*, *Txonbordo* eta *Xunkadoi*-ren aldamenean.

167. 1914eko katastroa.

168. 1892ko katastroa.

169. B. Urtasun Villanueva, "Toponimia de Oroz-Betelu", FLV, 9.zkia., 1971. 333-346.or.

170. 1892ko katastroa.

171. 1892ko katastroa.

172. 1914eko katastroa.

173. 1892ko katastroa. *Aristuburria* da ageri den forma. Honen azpian guk aukeratutako izena nahiz *Aristuburria* egon daiteke.

174. 1892ko katastroa.

(Otsa)¹⁷⁶, *Maldadui* (Muniain)¹⁷⁷, *Piñadua* (Muniain)¹⁷⁸, *Sagardoi* (Zaragueta)¹⁷⁹, *Sagardoi(a)* (Arrieta)¹⁸⁰, *Sagardua* (Arrieta)¹⁸¹, *Txonbordoi*¹⁸² (Uritz), *Xunkadoi*¹⁸³ (Uritz), *Zigordua* (Azparren)¹⁸⁴, *Zumeadoi* (Uritz)¹⁸⁵.

Aezkoa: Ibar honetan *-doi* eta *-dui* aurkitzen ditugu, nahasian: *Ariztumendia* (Abaurregaina), *Istildua* (Aria)¹⁸⁶, *Korostua* (Hiriberri)¹⁸⁷, *Lizardua* (Aria)¹⁸⁸, *Otadua* (Garraida)¹⁸⁹, *Pasarandoia* (Abaurregaina)¹⁹⁰, *Sagardoandia* (Garraida)¹⁹¹, *Sagardoiburua* (Abaurrepea)¹⁹², *Zimiztoia* (Abaurrepea)¹⁹³.

Luzaide: XIV mendean *Urdinzargiurriztua*¹⁹⁴ dokumentatzen da, baina gure egunotan *Urriztilepo*¹⁹⁵ dugu.

Erroibar-Orreaga: hemen ere, XIII mendetik hona *-doi*, *-dui* > *-di* pausoa gertatu dela irudi du: *Jauregiariztui* dokumentatzen da 1245 eta 1280an eta *Jauregiariztoia* 1284ean (herria?)¹⁹⁶, baina gure egunotan *Ezpeldi* (Mezkiritz)¹⁹⁷ eta *Sabukadi* (Orreaga)¹⁹⁸ ditugu.

Orain berriz ere mendebaldetik ekialdera joaz, hau daukagu goragoko bailara eta herrietan:

Burunda: hemen *-di* dugu: *Ziordi* herri izenaz gain beste toponimo hauek ere baditugu: *Intxostia* (Altsasu)¹⁹⁹, *Ostadi* (Ziordia)²⁰⁰, *Otadia* (Altsasu)²⁰¹, *Sagardia* (Bakaiku)²⁰².

175. 1892ko katastroa.
176. 1892ko katastroa.
177. 1892ko katastroa.
178. 1892ko katastroa.
179. 1892ko katastroa.
180. 1892ko katastroa.
181. 1892ko katastroa.
182. 1892ko katastroa.
183. 1914eko katastroa.
184. 1892ko katastroa. Honekin batera *Zigordia* eta *Zigurdia* aldaerak ere dokumentatzen dira.
185. 1892ko katastroa.
186. Agoizko hipotekak-3, 565.or., 1852.
187. PRA-Oibar, 78.k., 1796.
188. 1916ko katastroa.
189. Agoizko hipotekak-4, 445.or., 1858.
190. 1916ko katastroa.
191. Agoizko hipotekak, 4, 262.or.
192. 1916ko katastroa.
193. 1916ko katastroa.
194. J. José Martinena Ruiz, *Catálogo Documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1301-1500)*, Institución Príncipe de Viana-CSIC, Iruñea, 1979, 88.or.
195. Eleizalde.
196. M.^a Isabel Ostozala, *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, Institución Príncipe de Viana-CSIC, Iruñea, 1978, 207, 223 eta 291. orr.
197. Ahozko bilketa.
198. Eleizalde.
199. Eleizalde.
200. Eleizalde.
201. Eleizalde.
202. 1893ko katastroa.

Aranatz: aurrekoan bezala, alderdi honetan ere - *di* dugu: *Illardia* (Arbizu) ²⁰³.

Arakil: hemen ere -*di* daukagu: *Arantzadi* (Uhartea) ²⁰⁴, *Artadia* (Irurtzun eta Izurdiaga) ²⁰⁵, *Legardi* (Urritzola) ²⁰⁶, *Lezkadi* (Irañeta) ²⁰⁷, *Lezkadi* (Murgindueta) ²⁰⁸, *Pikudi* (ihabar) ²⁰⁹.

Oloibar: *Elordi* (Senosiain) ²¹⁰ toponimoa besterik ez dugu dokumentatu, eta beraz ezin dugu seguritate osorik izan. Guztiarekin ere, badirudi, inguruko bailaretan bezala hemen ere -*di* dugula.

Oltza zendea ²¹¹: hemen -*di* dugu beti: *Arizdizabal* (Oltza), *Arizdizelaia* (Aratzuri), *Bikudi* (Lizasoain), *Bikudigaña* (Artazkotz), *Itxaustia* (Izu), *Lapastia* (Ibero), *Lauzadia* (Izkue), *Mostazadia* (Asiain), *Sagardia* (Ororbia).

Itza zendea ²¹²: aurrekoan bezala, -*di* dugu beti: *Arkakaraztia* (Otxobi), *Artadit(t)oa* (Iharte), *Elordia* (Aldaba), *Elordizoko* (Saratsa), *Gilladia* (Aritz), *Gilladia* (Lete), *Kaskalludia* (Orderitz), *Lizardia* (Itza), *Txarakadia* (Eritze).

Gulibar: -*di* aldaera laburtua agertzen da bildu ahal izan ditugun adibideetan: *Bagadia* (Zia) ²¹³, *Sagastia* (Gulia) ²¹⁴.

Atetz ²¹⁵: inguruko beste bailaretan bezala, hemen ere -*di* dugu beti: *Arantzadi* (Ziganda), *Piñadi* (Aroztegi) ²¹⁶, *Sagardi* (Egillor), *Sagardi* (Eguarats), *Sagardi* (Eritze).

Xulapain: hemen ere -*di* besterik ez dugu aurkitzen: *Bagadiko lepoa* (Usi) ²¹⁷, *Lizardi* (Beorburu) ²¹⁸, *Lizardi* (Osinaga) ²¹⁹, *Muskildi* (Beltzuntze) ²²⁰, *Otadi* (Nuin) ²²¹, *Sagardia* (Larraiotz) ²²², *Txapardi* (Aristregi) ²²³,

203. Eleizalde.

204. Eleizalde.

205. 1894eko katastroa.

206. 1894eko katastroa.

207. Eleizalde.

208. 1894eko katastroa.

209. 1894eko katastroa. Toponimo hauetaz gainera, "belardia" adiera duen *tailadi* izen arrunta dugu Arakilen. Ikus Eleizalde.

210. Eleizalde.

211. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona*. *Cendea de Olza*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1989.

212. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona*. *Cendea de Iza*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1990.

213. PRA-Asiain, 52.k., 1621.

214. PRA-Asiain, 46.k., 1598.

215. Ahozko bilketa.

216. Ahozko bilketa.

217. Ahozko bilketa.

218. Ahozko bilketa.

219. 1894eko katastroa.

220. PRA-Ihaben, 66.k., 1714.

221. PRA-Ihaben, 129.k., 1786.

222. Ahozko bilketa.

223. Ahozko bilketa.

Txapardi (Nabatz) ²²⁴, *Zimiztia* (Otsakar) ²²⁵, *Zugardi* (Untzu) ²²⁶.

Ezkabarte: Iruñe ondoko bailara honetan ere -di aurkitzen dugu: *Gilladia* (Orrio) ²²⁷, *Piñadia* (Sorauren) ²²⁸, *Zumadia* (Zildotz) ²²⁹.

Olaibar ²³⁰: hemen ere, ondoko bailaretan bezala, -di dugu ditugun lekukoetan: *Bagadia*, *Ezpeldi*, *Urrizdikoa* (Olaibar).

Esteribar: haran honetan ere -di dugu: *Artadia* (Antxoritz) ²³¹, *Ezpeldi* (Zabaldika) ²³², *Lerdi* (Sarasibar) ²³³, *Lertxundi* (Irotz) ²³⁴, *Txunkadia* (Zuriain) ²³⁵, *Sagardia* (Ilurdotz) ²³⁶, *Zunkadia* (Akerreta) ²³⁷.

Nafarroako gainerako ibar eta herrietan ere -di dugu beti:

Araitz: *Ollakadi* (Betelu) ²³⁸.

Larraun: *Kalardi* (Errazkin) ²³⁹.

Basaburu Nagusia ²⁴⁰: *Amezti* (Itsaso), *Apasagasti* (Erbiti), *Isasti* (Aizarotz), *Orbeldi* (Ihaben), *Sagardia* (Gartzaron), *Sagardiko alorra* (Orokietia).

Imotz: *Sagardi* (Etxaleku) ²⁴¹.

Ultzama: *Elordi* (Iraizotz) ²⁴², *Sagardia* (Larraitzar) ²⁴³, *Sagardia* (Alkots) ²⁴⁴, *Zimizti* (Auza) ²⁴⁵.

Odieta: *Sagardia* (Ziaurritz) ²⁴⁶, *Sagardikoa* (Ostitz) ²⁴⁷, *Zumedia* (Gelbentzu) ²⁴⁸.

Anue: *Zubasti* (Lantz) ²⁴⁹.

Baztan: *Amezti* (Elbete) ²⁵⁰, *Arzitieder* (Azpilkueta) ²⁵¹, *Elordi* (Alman-

224. Ahozko bilketa.

225. PRA-Ihaben, 41.k., 1716.

226. Ahozko bilketa.

227. PRA-Atarrabia, 105.k., 1813.

228. PRA-Atarrabia, 103.k., 1806.

229. PRA-Atarrabia, 103.k., 1806.

230. Eleizalde.

231. PRA-Atarrabia, 105.k., 1814.

232. PRA-Atarrabia, 91.k., 1790.

233. PRA-Atarrabia, 91.k., 1790.

234. PRA-Atarrabia, 104.k., 1811.

235. Agoizko hipotekak-3, 373.or., 1851.

236. Agoizko hipotekak-4, 461.or., 1858.

237. Agoizko hipotekak-3, 940.or., 1852.

238. 1893ko katastroa.

239. Eleizalde.

240. 1893ko katastroa.

241. Ahozko bilketa.

242. Eleizalde.

243. Eleizalde.

244. Eleizalde.

245. Eleizalde.

246. 1893ko katastroa.

247. Eleizalde.

248. 1893ko katastroa.


249. Eleizalde.

250. 1894eko katastroa.

251. 1894eko katastroa.

doz)²⁵², *Elordia* (Arraioz)²⁵³, *Elordizuri* (Erratzu)²⁵⁴, *Isastia* (Elizondo)²⁵⁵, *Lizardia* (Gartzain)²⁵⁶, *Sagardialdea* (Lekaroz)²⁵⁷.

Basaburu Txikia-Saldias: Ameztia (Ezkurra)²⁵⁸, *Beingetako hariztia* (Goizueta)²⁵⁹, *Errazti* (Arano)²⁶⁰, *Isastia* (Beintza-Labaien)²⁶¹, *Sagastizarreta* (Areso), *Tantaidi* (Saldias).



252. Eleizalde.

253. Fco. Ondarra. "Apeo de Baztán (1726-1727)", CEEN, 44.zkia. 1984, 5-47.orr.

254. 1894eko katastroa.

255. Ondarra, 1727.

256. Ondarra, 1727.


257. Ondarra, 1727.

258. 1894eko katastroa.


259. L. F. Etcheberria, "Goizuetako toponimia Artikutzakoa ezik", FLV, 51.zkia., 1988, 77-118.orr.

260. 1894eko katastroa.

261. Eleizalde.









Malerreka: Mizpiradi (Doneztebe), *Onbordi* (Ituren), *Sagardiko etxealdea* (Elgorriaga), *Urkidi* (Zubieta) ²⁶².

Bortzirriak: Sagardigaraia ²⁶³, *Urrizti* (Bera) ²⁶⁴.

Orain eman ditugun datuak mapetara pasatuko ditugu, aldaki bakoitzaren hedadura argiago ikustearren. Mapa hauek muga aldekoak dira batik bat, eta mendebaldetik ekialdera ordenatuak daude, Ameskoagoiendik Erronkariraino. Azkenean Nafarroako mapa osoa sartuko dugu, zatika emandakoak bateratuz:

Orain mintzagai dugun atzizkiaren oinarri diren izenak aztertuko ditugu, bildu ditugun toponimoetara mugatuz eta sobera sakondu gabe, gai honek lan berezia eskatzen duela uste baitugu ²⁶⁵. Mitxelenak esan bezala, gehienetan landare izenekin azaltzen da gure atzizkia, multzo honetan belarretatik zuhaitzetarainokoak sartzen direlarik, bai eta hauekin modu batera edo bestera zerikusia dutenak:

Zuhaitzak: ametza, artea, bagoa/pagoa, bikua/pikua, ezkia, ezpela, gila, itxaurra/eltzaurra, harana, haritza, lerra, lizarra, mizpira, oliboa, sagarra, pinua, sabuka/zamuka/zamakia (?), saratsa, txaparra, txopoa, urkia, urritza, zugarra, zuhaitza bera.

Zuhaixkak, fruituak eta belarrak: arantzea, arkakaratza, elorria, erratza, il(l)arra, ipurua, isatsa, izpikua, junkua/txunkua/xunkua/zunkua, korostia/korostuia ²⁶⁶, laharra, lezka, moskatela, ollaka ²⁶⁷, otea, pasarana, ziaurria/ziorria/zigorria, zimitza, zumea.

Landareekin loturiko izenak: arbasta, galarra/gararra/kalarra, hostoa, muskila, onborra/zonborra/txonborra, orbela.

Bestelako oinarriekin ere azaltzen da, bereziki *harri* izenaren eremu semantikoaren barrukotzat jo daitezkeenekin, hots, harea, harria, kisua, lauza, legarra eta antzekoekin. Honekin zerikusia izan dezake "lur urtsua" adiera duen Ariako *Istilduia* toponimoak ²⁶⁸. Erliebearekin lotuta dauden izenekin ere agertzen da inoiz edo behin: *Maldadoi* (Otsa), *Maldadui* (Artzi-Muniain) (cf. Pasaiko *zabaldia* izen arrunta ²⁶⁹).

Badira, azkenik, zer diren ez dakigun beste oinarri batzu. Gardentasunik ez honen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke: esan bezala bukaerako *-doi* hori jatorriz *idoi* "baltsa" izatea, toponimoa desitxuratua egotea,

262. Iturengo udal artxibategia, 1554.

263. Bera lurraldeko mapa. Oartzun bailarako Ilzadi elkarte, I. Arbelaitz eta beste.

264. Eleizalde.

265. Beste puntu interesgarri bat *-doi*, *-dúi*-*di* eta antzeko beste atzizkien arteko berdintasuna eta ezberdintasunak argitu eta finkatzea izan daiteke: *Lezkatzea / Lezkairu / Lezkadua; Elordi / Elosu / Elgorriaga / Elorrieta*...

266. Dirudienez, izen honek bere baitan darama aztergai dugun atzizkia, eta hortik *gorosti*, *korosti* / *korostuia* txandaketa.

267. *Oilaka* Azkue, Bonaparte eta Mitxelenaren arabera "zakur emea" da, baina Beteluko *Ollakadi* bezalako toponimoek landareren bat ez ote den susma eratzen digute (cf. gainera, *Oilakaran*, *Oilakarizketa*...).

268. Zeren nola negua baita *linburi*, *leun*, *istilsu* eta *lohitsu*, ezta bidean ibiltzeko on, Axular, *Gero*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1976, 225.or.

269. A. Elortegi, *Pasaiko toponimia*, argitaragabeko lana.

osagaietako bat ezezaguna izatea... Adibide moduan honako hauek aipa daitezke: *Alkadoia* (Urzainki), *Apladoia* (Itzaltzu), *Astui* (Orotz- Betelu ²⁷⁰), *Azpildunya* (Aranaratxe), *Susadia* (Artazu) ²⁷¹, *Unzidunia* (Ameskoabarren)...

Bukatzeko, ikusitako datu gutzi horietatik ondorio batzu aterako ditugu. Hona hemen:

1- Mitxelenak esan bezala, *-doi* ekialdekoa da, eta Zaraitzu eta Erronkarin azaltzen da. Dena den, atzizkiaren hedadura zertxobait handitu behar dela dirudi, Urraulgoitin ere dokumentatzen delako. Zalantzan dago "Romanzado" deritzana, hemengo lekukorik ez dugulako, eta beraz *-doi*-ren eremuaren barrukotzat jo arren badaiteke *-dui*-rekin txandakatzea (cf. ondoko Urraulbeiti), *dui* bakarra erabiltzea, nahiz beste zerbait izatea.

2- *-Doi* eta *-dui*-ren nahasketa (edo txandaketa) ekialdean Aezkoan eta Artzibarren gertatzen da, eta mendebaldean Ameskoabarren eta Allinibarren zati batean, eta hortaz ezin esan daiteke hegoaldeko goi-nafarrera osoari dagokionik.

Mendebaldeko alderdiaz den bezainbatez, datu gutxi samar dugula azpimarratu behar dugu, eta beraz ezin dugula seguritate handirik izan. Ekialdean ordea, *-doi* / *-dui* txandaketa segurua dela uste dugu, baina hemen arazoa muga finkatzean datza, Arriasgoitiko lekukotasunik bat ere ez dugulako.

3- Mendebaldean, Ameskoagoiengo *-dui* Arabako ondoko alderdiko aldakiaren jarraipena dela dirudi. Nafarroan *-dui*-ren eremua bitan zatitua ageri da, eta ezinezkoa da (edo oso zaila behintzat) inoiz bat eginda egon diren jakitea. Tarean, mapan ikusten denez, *-di* sartzen da.

4- *-Di* zabalerarik handieneko aldaera dugu, Iparralde eta Gipuzkoakotik hizkuntz mugan luzez egon bide den Artaxonaraino luzatzen delarik. Mendebaldetik Arabako lautadan agertzen den *-dui*-rekin mugatzen du ²⁷², eta ekialdetik ere bai, Agoitz, Itzagaondoa, Urraulbeiti eta Oibar haranean ere aldaki bera dokumentatzen baita.

5- Elo eta Idotzinen *-di* *-dui* eremu bat mugatu dugu, toponimo gutxi batzutan txandaketa hau gertatzen delako. Garbi utzi nahi dugu, alabaina, bertako aldakirik arruntena *-di* dela, eta lekuan lekuko ildo nagusitik saihesten diren adibideak, hasieran esan bezala, frankotan (toki eta aldi frankotan alegia) aurki daitezkeela.

6- Villasantek dion bezala txistukari gor baten atzean herskari ozenak gehienetan gortu egiten dira, baina hala ere bada ozentasunari eusten dion toponimo mordoxka bat: *Arizdia* Bidaurretan ²⁷³, *Arizdoia* ²⁷⁴ Imizkotzen,

270. *Haitz* izenaz osatua?

271. *VM*, 50.or.

272. Alderdi honetan *Ilarduia* herri izena dugu, *Lizuardi* (< *Lizardui*) toponimoa Asparran, *Idaduieta* Eginon, *Iradieta* Andoinen, eta *Lizardui* Urabainen, besteak beste. Ikus José Antonio González Salazar-en *Toponimia menor de Salvatierra*, Cuadernos de Toponimia-4, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1987, 160-169.orr.

273. Eleizalde.

274. 1892ko katastroa.

*Arizduia*²⁷⁵ Otsan, *Sarasdia* Badoztainen, *Urrizdia*²⁷⁶ Idotzinen, *Urrizdi-koa*²⁷⁷ Olaibarren, *Urrizdibarrena* Undion²⁷⁸...

7- Orain arte, dakigunez, inork aipatu ez duen *-du / -tu* aldaerak ere aurkitu ditugu, bata bestetik urrun dauden tokietan. Esan bezala, *-dui / -tui*-ren laburketaren ondorio ditugu hauek.

LABURPENA

Lan honetan *-doi* atzizki multzokariak Nafarroan duen banaketa geografikoaren azterketa egin nahi izan dugu, erresuma zaharrean erabiltzen diren aldaerak ikusiz, eta aldaera bakoitza azaltzen den haran eta herriak zein diren zehaztuz.

Behialako forma silababikoaren ondorengoen artean hedadura gehien duen *-di/-ti* dugu, hau Iparralde eta Gipuzkoatik Artaxonaraino, eta Ziorditik Agoitz inguruetaraino ibili izan delarik; *-doi/-toi*, Mitxelena dioenez ekialdeko aldaera dena, Zaraitzu, Erronkari eta Urraulgoitin erabilia; *-dui/-tui* ekialde nahiz mendebaldekoa, eta hondar honen aldaera den *-du/-tu*.

Emandako datuak zatikako lau mapatan eta mapa orokor batean isladatzeaz gain, atzizki honekin agertu ohi diren oinarrien sailkapen txiki bat ere egin dugu.

RESUMEN

En este trabajo se ha pretendido realizar un análisis de la distribución geográfica de los continuadores del sufijo colectivo *do.i* en Navarra, viendo cuáles son las variantes empleadas en el antiguo reino, así como los valles y pueblos en que cada una de éstas aparece.

Entre los descendientes de la antigua forma bisílaba, tenemos *-di/-ti* que es la variante de mayor extensión, ya que ha sido empleada desde Iparralde y Gipuzkoa hasta Artajona y desde Ziordi hasta cerca de Aoiz; *-doi/-toi* forma oriental, como Mitxelena señala, que se extiende por Salazar, Roncal y Urraúl Alto; *-dui/-tui* forma tanto occidental como oriental, y *-du/-tu*, variante de la anterior.

Tras reflejar los datos indicados en cuatro mapas parciales y uno general, se hace también una pequeña clasificación de los temas a los que acompaña este sufijo.

275. 1892ko katastroa.

276. PRA-Elo, 11.k., 1684.

277. Eleizalde.

278. TCPCC, 450.or.

RESUME

On a prétendu faire dans cet article une analyse de la distribution géographique des continuateurs du suffixe collectif *do.i* en Navarre, en voyant quelles sont les variantes employées dans l'ancien royaume, ainsi que les vallées et villages où apparaît chacune d'entre elles.

Parmi les descendants de l'ancienne forme bisyllabique, nous avons *-di/-ti* qui est la variante la plus répandue, puisqu'elle a été employée depuis Iparralde et Gipuzcoa jusqu'à Artajona, et depuis Ziordi jusque près d'Aoiz, *-doi/-toi* forme orientale, comme le signale Mitxelena, qui s'étend dans les vallées de Salazar, Roncal et Urraul Alto; *-dui/-tui* forme occidentale tout autant qu'orientale, et *-du/-tu*, variante de la précédente.

Après avoir reporté les données indiquées sur quatre cartes partiales et une carte générale, nous faisons également une petite classification des thèmes qu'accompagne ce suffixe.

SUMMARY

With this work we have tried to carry out an analysis of the geographical distribution of the collective suffix *-doi* in Navarra, considering the variants as well as the villages and valleys where each one is used.

Among the followers of the ancient bisilabic form we find *-di/-ti*, which is the most widespread variant as it has been used from Iparralde and Guipuzcoa to Artajona and from Ziordi to near Aoiz; *-doi/-toi*, the oriental form as stated by Michelena, which extends over Salazar, Roncal and Urraul Alto; *-dui/-tui* a form that is both oriental and occidental, and *-du -tu* variant of the former.

After exposing the data on four partial maps and a general one, we have classified the themes to which the suffix is attached.

